



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak azpimarratu dau Bizkaia dala azken bost urteotan "nekazaritzako produkzioa eta errentak" handitu dituan "Lurralde bakarra"

Bilbon, 2014ko zezeilaren 5ean.

Irene Pardo Nekazaritzako Foru Diputatu andreak, Bizkaiko lehen sektorearen osasun egoerea defendidu dau gaur Batzar Nagusien aurrean egin dauan agerraldian. Esan dauenez, “bizirik eta garapenean” dagoan sektorea da, eta nekazaritzako ustiapen kopuruak gora egin dau, azken bost urteotan “170 profesional barri sartu diralako” batez be. Bere Sailak jaso dituan datuek erakusten dabe Bizkaiak nekazaritzako 5.426 ustiapenakaz itxi ebala 2013. urtea, aurreko urtean baino 83 gehiago. Bizkaiko lurraldea da azken bost urteetan nekazaritzako produkzioa eta errentak handitu dituan “bakarra”.

Pardok holan erantzun deutso bere batzorderatzea eskatu dauen Bizkaiko Talde Popularrari (PP), talde horren eretxiz Bizkaiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien kopurua “eten barik” murrizten ari dalako. Popularren berbetan, sektorea “desagertzeko arrisku larrian egongo litzateke”, diru-laguntza publikoengaitik izango ez balitz. Diputatu andreak azpimarratu dau sektoreak “oso esfortzu garrantzitsua” egin dauala azken urteetan, egokitzeko, ustiategiak modernizetako eta profesionalizetako. Neurri handian, hori posible izan da bost urteotan egindako 61 milioi euroko inbertsino ekonomikoari esker. Horreetatik ia %50, “29 milioi”, Aldundiak jarri ditu, adierazo dau. Nekazaritzako Foru arduradunak adierazo dau, baita be, produkzioagaz erlazionatutako laguntzak ehuneko hori baino askoz txikiagoak izango litzatekezala, “%10 ingurukoak”.

Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordean, “enpleguari eta aberastasunari eutsi egiten deusan” sektorea erakusten daben beste kopuru batzuk be eskini dira. Holan, diputatuak, “Bizkaiko nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza sektorean aurrera jarraitzen daben “8.000 lanpostuak” eta gure baserritarrek kudeatzen dituen 187.000 hektareak aitatu ditu; horreetatik 137.000 basoa dira –“Lurraldearen %60”–, 46.800 abereek jateko erabilten dira eta 2.100 hektarea landatuta egongo litzatekez. Lur horren produktibitatea 128 milioi eurokoa izan zan 2008an, eta 142 milioikoa izan da 2013an.

Bere parte hartzean, Pardok 170 profesional barri sartu izana azpimarratu dau, eta oso pozik agertu da “baserritar gazteak buru dituen nekazaritzako ustiapenen finkapen maila altua dala eta, %98koa”. Emakumea “ustiapenaren buru” gisa agertzen da ustiapenen “%42an”, eta nekazaritzako beharginen batez besteko adina 50 urtekoa da. Sektorearen “nitxo” barriei jagokenez, Pardok, behien arraza pirenaikoan egindako “hobekuntza genetiko”, landako arrautzen produkzioan lortutako “emaitzak onak” eta produktu ekologikoen “garapena” azpimarratu ditu.

Batzarretako taldeak bat etorri dira sektoreak lurraldearen garapenean daukan garrantzia azpimarratzeari eta Bizkaiko nekazaritzari laguntzen jarraitzeari jagokenean. PPK gonbidapena egin deutso Aldundiari “ekonomiaren gorabeheren esku ez dagozan” ustiapenak indartu daizan, eta bertako arbola espezieentzat negozio aukerak aztertu daizan. Horrez gain, PSE-EE taldeak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eskaerea egin dau, Aldundiak produktuen kalidatea hobetzen lan egin daian.

EH Bildu taldeari jagokonez, beste kontsumo eredu bat sortzearen alde agertu da, gizartea eraldatzeko elementu gisa, eta bertako produktuen “dibertsifikazio kuota handiagoa” lortu behar dela azpimarratu dau, gertutasuneko zirkuituak erabiliz. Aukeraz baliatuz, koalizio abertzaleak gaur egungo NPK-PAC (Nekazaritza Politika Komuna) kritikatu dau, talde horren ustez, nekazaritzako industriaren garapena “bultzatzen dauelako”, “nekazari txikiaren kaltetan”. Puntu horretan bat etorri da diputatu andreagaz. Europatik “beharrean dagoan ekoizleari zuzenean” laguntzearen alde agertu da Pardo.

ABEREEN HERIOTZAK PIZTIEN ERASOAK DIRALA ETA

Beste alde batetik, Batzordeak baztertu egin dau PP-k aurkeztutako arauz besteko proposamen bat. Bertan eskaerea egiten jakon Aldundiari, “aztertu dagian zer egin behar dan 2014. urtean zehar berez, gaixotasunez, istripuz edo piztiekin erasota abereak galtzen dabean abeltzainei —ganadua asegurata dabenei— laguntzak emoteko”. Popularren asmoa, laguntza publikoak, “animalia basatien erasoen ondorioz hildako abereengaitik bereiztea zan”. Pizti horreen artean egongo litzatekeez, adibidez, sai arreak. Popularrek, “holango erlazinoak dituen diru-laguntzak” kentzea eskatu dabe.

Aldecoa batzordekide popularrak adierazo dau ez dauela ulertzen abeltzain batzuen “tranpatxoak onartzea”. Bere berbetan, abeltzain horreek sai arreek hil dituela abereak esaten dabe, laguntzak kobretako, eta “hori ez da egia”. Horrek, betidanik gizakiari “lurrak garbitzen” lagundu deusan animalia bat “espezie arriskutsu gisa” erakusten dau. Ordezkarri popularrak adierazo dauenez, fama horren ondorioz Estaduko leku askotan hegaztiak pozoitzen ari dira. Aldecoak esan dauenez, Penintsulan “243” pozoitze kasu hauteman dira.

Ganerako taldeek –EAJ-PNV-k, PSE-EE-k eta EH Bilduk- ez dabe onartu Aldundiak abereen heriotzaren ondoriozko foru laguntzak zabaldu behar dituanik, heriotzaren zergaitia kontuan izan barik. PSE-EE taldearen eretziz, ekimena “harrigarria” da, eta “kontraesanak” ditu. Joaquin Colmenero batzordekide sozialistak PP taldea kritikatu dau, abeltzainek “laguntzak jasotzeko tranpak egiten dituela” esan dauelako, eta egon daitekezan pikareska posibleak saihesteko egin beharreko “kontrolak egin daitezala” eskatu dau.

EAJ-PNV taldeak bere “ezustea” erakutsi dau, bere eretziz “neurritz kanpoko” dan ekimena dala eta. “Proponiduten dana ez dator bat errealidadeagaz”. “Ez da arazorik existiduten”, erantzun dau María Presa jeltzaleak, eta argitu dau 2013an “15 laguntza eskari” egon zirala, piztiekin hildako abereak dirala eta, eta Aldundiak horreetatik “10 onartu ebazala”. Kopuru hori “ez da esanguratsua”, azken lau urteetan “6.257” abere hil dirala kontuan izanda, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Bizkaia es el "único" territorio que ha incrementado "la producción y renta agrarias" en los últimos cinco años

Bilbao, a 5 de febrero de 2014.

La diputada foral de Agricultura, Irene Pardo, ha defendido hoy en una comparecencia en las Juntas Generales, el estado de salud del sector primario en Bizkaia. Se ha referido a él como un sector "vivo y en desarrollo" que ha experimentado un incremento en el número de explotaciones agrarias debido en buena medida a la "incorporación de 170 nuevos profesionales" en los últimos cinco años. Los datos recogidos por su departamento arrojan que Bizkaia cerró el 2013 con 5.426 explotaciones agrarias, 83 más que en el año anterior. El territorio vizcaíno es el "único" que incrementa la producción y renta agrarias en el último lustro.

Pardo contestaba así al grupo Popular Vizcaíno (PP) que había solicitado su comparecencia por entender que el descenso del número de explotaciones agrarias y ganaderas en Bizkaia era "continuado". Según los populares, el sector estaba en "riesgo de desaparición" si no fuera por las ayudas públicas. En su defensa, la diputada ha destacado que el sector ha realizado en los últimos años un esfuerzo "muy importante" para adaptarse, modernizar sus explotaciones y profesionalizarse. En buena medida, eso ha sido posible gracias a una inversión económica de 61 millones de euros en cinco años, de los que casi la mitad, "29 millones", fueron aportados por la propia Diputación, ha señalado. La responsable foral de Agricultura ha manifestado además que las ayudas en relación a la producción estarían muy por debajo de este porcentaje, "en torno al 10%".

En la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales, se han ofrecido otras cifras que hablan de un sector que "está manteniendo el empleo y la riqueza". Así, la diputada se ha referido a los "8.000 empleos" que se mantienen en el sector agroganadero y forestal vizcaíno y las 187.000 hectáreas que son gestionadas por nuestros baserritarras; 137.000 corresponden a bosque –"el 60% del Territorio"–, 46.800 hectáreas serían utilizadas como pasto para el ganado y 2.100 hectáreas corresponderían a tierras de cultivo. La productividad de estos suelos pasó de generar 128 millones de euros en 2008 a 142 millones en 2013.

En su intervención, Pardo ha destacado también la incorporación de 170 nuevos profesionales y se ha felicitado del "alto grado de consolidación" de las explotaciones lideradas por jóvenes baserritarras que llega al "98%". La presencia de la mujer como "jefa de explotación" alcanza el "42%" y la media de edad del conjunto de trabajadores agrarios se sitúa en los 50 años. En cuanto a los nuevos "nichos" del sector, Pardo ha subrayado la "mejora genética" efectuada en la raza vacuna pirenaica, los "buenos resultados" en la producción de huevos camperos y el "desarrollo" de los productos ecológicos.

Los grupos junteros han coincidido en destacar la importancia del sector para el desarrollo del territorio y en seguir apoyando al agro vizcaíno. El PP ha invitado a la Diputación a potenciar explotaciones que estén "menos sometidas a los vaivenes económicos" y a explorar, en el sector



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

forestal, posibilidades de negocio para especies autóctonas. El PSE-EE ha pedido, además, que la Diputación trabaje en mejorar la calidad de los productos.

Por su parte, EH Bildu ha abogado por crear otro modelo de consumo como elemento de transformación social y “mayores cuotas de diversificación” de los productos del país aprovechando los circuitos de proximidad. La coalición abertzale ha aprovechado la oportunidad para criticar la actual política europea del PAC (Política Agraria Común) que, según esta formación, “favorece” el desarrollo de la agroindustria “en detrimento del pequeño agricultor”. En este punto, ha habido coincidencia con la diputada. Pardo se ha mostrado conforme a que desde Europa se ayude “directamente al productor en activo”.

MUERTES DE GANADO POR ATAQUES DE ANIMALES

Por otro lado, la Comisión ha rechazado una proposición no de norma del PP que pretendía instar a la Diputación a estudiar “mecanismos de ayuda a los ganaderos que, teniendo su ganado asegurado, sufran pérdidas de ganado por muerte natural, muerte por enfermedad o muerte por accidente o ataque de otro animal”. Los populares pretendían que se desligasen las ayudas públicas de “hipotéticas atribuciones” de la muerte de ganado “a ataques de especies animales salvajes, como por ejemplo los buitres leonados”, y que se anulasen “las ayudas que existan con vinculaciones semejantes”.

El apoderado popular Arturo Aldecoa ha manifestado que no comprende que “transijamos con la trampita” de algunos ganaderos que, para poder cobrar, responsabilizan a los buitres leonados de la muerte de su ganado, porque “no es cierto”. Es poner un “San Benito de especie peligrosa” a un animal que ha ayudado históricamente al hombre a “limpiar el campo”. El representante popular ha señalado que una de las consecuencias de esta mala fama es el envenenamiento de aves que se está produciendo en muchos puntos del Estado. Ha cifrado en “243” los casos de envenenamiento detectados en la Península.

El resto de grupos –PNV, PSE-EE y EH Bildu- han rechazado que la Diputación deba generalizar las ayudas forales por muerte de ganado sin tener en cuenta el motivo del fallecimiento. Para el PSE-EE, la iniciativa es “desconcertante” e incluye “contradicciones”. El juntero socialista Joaquín Colmenero ha criticado al PP por decir que los ganaderos “hacen trampas para conseguir ayudas” y ha apostado por que se hagan los “controles suficientes” para evitar posibles picarescas.

El PNV ha mostrado su “sorpresa” por una iniciativa que considera “desmedida”. “Lo que propone no se ajusta a la realidad”. “No existe un problema”, ha respondido la jeltzale María Presa, quien ha desvelado que en 2013 se produjeron “15 solicitudes” de ayuda por ataques a ganado con resultado de muerte y la Diputación “aceptó 10”. La relación es “insignificante” teniendo en cuenta que en los últimos cuatro años las muertes de cabezas de ganado se situaron en “6.257”, ha dicho.